



EUSKAL HERRIA SOZIALISTA



101 zenbakia
euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Ezker
Iraultzailearen
aldizkaria**

Bankuen, putre funtsen eta errentatzaileen etxeak

DESJABETU

ETXEBIZITZA PUBLIKO UNIBERTSALA

Alokairuen grebarantz!

Trumpek Zelenskiri egotzi dio errua, AEBk UKRAINAN IZANDAKO PORROT katastrofikoa ezkutatzeko

► KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Nork eragin zuen Ukrainako gerra eta zergatik?

Trumpek historia berridatzi nahi du, eta hondamendi horren aztarnak ezabatu. Ukrainako gerra AEBetako inperialismoak eragin zuen. SESBen erorketaren eta Ekialdeko Europan erregimen estalinisten kolapsoaren ondoren, Washingtonek eragin oso garrantzitsua izan zuen Errusiako buruzagiengan, PCUSetik etorritako eta estatuaren jabetza pribatizatuz arpilatu burokratengan. Yeltsinek eta bere

segizioek zaharberitze kapitalista gidatu zuten. Baina Estatu Batuetako Administrazioak, ageriko ahultasun hori aprobetxatuz, ez zituen bere probokazio militarrik eten, NATOren mugak ekialderantz erasokor hedatuz.

Varsoviako Itun zaharreko herrialde askok bat egin zuten NATOrekin, eta Errusia setiatu zuten base militarrekin eta misil sistemekin mugako herrialde horietan. Ukraina funtsezko pieza zen estrategia oldarkor eta militarista horretan, eta Washingtonek eta Bruselak 2014an Maidanen estatu kolpea sustatu, elementu nazi supremazistetan oinarrituz eta Donetsk eta Luhansk errusiarren aldeko lurraldeetan gerra zibila piztu zuten milaka biktima eragin zituztelarik. AEBk gerrara kontzienteki bultzatu zuen, Minskeko bake akor-

dioei boikota eginez, eta adieraziz Ukrainari NATO sartzeko aukera emango zion. Moskuk zeharkatzen utziko ez zuen marra gorria aintzat hartu gabe.

Ukrainako gerrak beste helburu erabakigarri bat zuen: Europan kolpe bat ematea, Errusiarekiko harremanak haustea, bereziki Alemaniaren kasuan, eta Txinaren ezarpen ekonomiko gero eta handiagoa geldiaraztea. AEBk Nord Stream lehertarazi zuen, Alemaniako industria saboteatuz, zeinaren lehiakortasuna Errusiako gas eta petrolio merkeen mende baitzegoen, eta munduko merkatuko lehiakide nagusietako bat kolpatuz. Horixe da orain lortu nahi dena, Zelenski ez ezik, Europako bazkide zerbitzariak ere umiliatuz. EB haustea eta taifa erresumak sortzea, Ipar Amerikako inperialismoa eztabaidaririk gabe inposatu ahal izateko. Baina urrats hori ez da erraza izango.

Gerrak eta Errusiaren aurkako zigorrak ez dute eragotzi EBren eta Txinaren arteko harremanak indartzen jarraitzea, 2022tik 2024ra bitartean Txinako ondasunen inportazioak errekorretara iritsi baiti-

ra, Europako merkataritza defizita Asiako potentziarekin handitzen den bitartean. 2024an, EBk Txinarekin duen truke komertzialak hazten jarraitu zuen, 785.000 milioi dolareraino, eta AEBekin, berriz, 941.000 milioi dolareraino. Txinarekin harremanak ezin dira banandu, mendebaldeko propagandistak behin eta berriz saiatu arren.

Egia da Txina izan dela Alemaniaren bazkide komertzialik handiena 2016 eta 2023 artean, eta posizio hori galdu du 2024an, AEBen mesedetan. Dinamika hori, ordea, Alemaniako krisi industrial eta ekonomikoaren ondorioa da Ipar Amerikako maniobren ondorio baina, eta Alemaniarekin duen defizit komertziala handitzea ekarri du, iaz 63.000 milioi dolar izatetik 70.000 milioi dolar izatera igaro baita. Hau da, AEBk zailtasun handiei aurre egiten jarraitzen du Europan, eta ez du te Txinaren aurrerapena geldiarazten kontinente zaharrean.

AEBk Putinen helburuak onartuz hasi du negoziazioa... Hau da, amore eman du AEBetako inperialismoak porrot egin du gerraren hasieran planteatu ziren helburu guztietan eta, halaber, agerian utzi ditu bere industria militarrik bizi dituen ahulezia larriak, ez baita gai Errusiako ahalegin militarra berdintzeko, irabazi ikaragarriak lortu arren. Bestalde, superpotentzia gisa, oso fidagarritasun gutxiko aliatu bihurtu da.

Porrotak Trumpen administrazioa eta klase nagusiko sektore bat behartu ditu orain akordio "onargarri" bat bilatzera, Afganistanen gertatu zitzaizen bezala kolapso desordenatu bat jasateko arriskua hartu baino lehen. Arrakasta itxurak egin nahi arren, hondamendia haien zat da eta garaipena Xi Jinping zein Putinentzat.

Negoziazioen abiapuntua hondamendiaren tamainaren aitorpena da. Pete Hegseth Defentsa idazkari berriak adierazi du ez litzatekeela errealista izango Ukraina 2014ko mugetara itzultzea, ezta NATO sartzeko ere. Gauzak horrela, Putinen Gobernuak, negoziazio horretan presarik gabe, azaldu du ez dela nahikoa izango Ukraina NATO ez onartzea, baizik eta Bukaresten 2008an Ukraina zein Georgia NATO sartzeko erabakitako konpromisoa bertan behera uztea. Putin eta Errusiako oligarkia kapitalista bere helburu politiko, territorial eta militar guztiak lortzeko bidean daude, eta hori agerian jarri nahi dute.

Aldaketa erabakigarri horren arrazoia ez da Trumpen ustetako erokeria, ezta Pu-





tinen begikotasuna lortzeko estrategia bat ere, baizik eta baliabide itzelak inbertitu arren begi bistako porrot militarra. AEBk 175.000 milioi dolarreko laguntza-pake-teak onartu dizkio Ukrainari, eta horiei beste 130.000 milioi gehitu behar zaizkie EBren eta Europako herrialdeen aldetik. Danera 400.000 milioi baino gehiago! AEBetako laguntzak 2001 eta 2010 artean Afganistanen erabilitakoa gainditu du, azken kasu horretan okupazio militar bat gertatu zen ezberdintasunarekin. Apustua izugarria izan da, eta emaitzak oso txikiak.

Gainera, AEBk eta Europak zigor estrategia oldarkor bat zabaldu zuten Errusiaren aurka, hura bakartzeko eta bere ekonomia hondoratzeko. Baina Putinen erregimena, aurrerakoitik ezer ez duen eta komunismotik erabat kanpo dagoen erregimen kapitalista eta inperialista, indartu egin da. Bere ekonomia, gerran murgilduta, hazten ari da, 2024an % 4tik gora, AEB gaindituta eta EB oso atzean utzita, geldirik eta atzeraldian, hurrenez hurren. Hazkunde horrek, gainera, gerra industria indartsu bat bultzatu du, AEBk eta Europak elkarrekin baino artilleria jaurtigai hiru aldiz gehiago ekoizten duen!

Kohesio soziala eta Gobernuaren babesa indartu egin dira, Putinek aurrerarik gabeko % 87ko onarpen maila lortu baitu, Levada Institutuaren arabera. Arrazoietakoa bat soldata errealean hobekuntza eta bizi mailarena da: 2023an % 5,3ko igoera eta 2024ko lehen zazpi hilabeteetan % 9,2!

Ukraina, kolonia iparramerikar bat

Ukrainaren Askapen nazionalako gerra baten aurrean geundela planteatzen zutenek errealtate gordinarekin topo egin dute.

Trumpen Altxorraren idazkariak, Zelenskiri aurkeztutako proposamenak XIX. mendeko kolonialismoarenak dira. Proposamen horien arabera, AEBk etekin % 50 lortuko du herrialdeko baliabide naturalak ustiatzeagatik. Trumpen 500.000 milioi dolarreko konpentsazioak eskatu ditu, Ukrainako Barne Produktu Gordinaren (BPG) ia hiru halako, horrek hamarkada askotan herrialdea hipote-

katzea ekarriko luke. Zelenski, Washingtongo txotxongilo hautsia, proposamenak umiliazio nazional direla protestatu duen arren, azkenean makurtu zen, Etxe Zurian izandako liskarragatik oraindik akordioa sinatu ez badu ere.

Nolanahi ere, plan horrek, Altxorraren idazkariak Financial Timesen adierazi zuen bezala, "AEBen eta Ukrainaren funts bateratu" bat sortu nahi du, Ipar Amerikako inperialismoak baliabide naturalen, azpiegituren eta berreraikuntzaren beraren ustiapenez baliatu ahal izateko. Akordioa hain da umiliagarria, ezen Zelenskik eskatzen zuen Errusiaren aurrean segurtasun berme zehatzik ere ez baitu jasotzen.

Esan beharra dago, Trumpen zabaldu duenaren muina argitzeko, Ukrainako uszteko lur arraroak entelekia oso bat direla oraingoz, eta ustiatu beharreko beste baliabide mineral asko, edo errusiar eremuan daudela, kalkulatu da % 50, edo, ez direla errentagarriak inbertsio handiak hasteko.

Txinak lur arraroen merkatua kontrolatzea ikaragarria da: bi heren ekoizten ditu eta munduko erreserba ezagunenak ditu; gainera, lur guztien % 85 fintzeko gaitasuna du. Gasari dagokionez, Ukrainak, bere barne beharrak asetzeko, inportatu behar du eta bere ekoizpenaren % 90 errusiar eremuan dago, petrolio ekoizpena eta bere erreserba ezagunak irrigarriak diren bitartean. Ukrainaren funtzio nagusia Europara Errusiako gasa eta petrolio garraiatzen duten oliobideak igarotzen diren herrialdea izatea izan da.

Hori esanda, Trumpen argi adierazten duen kolonialismoa nagusitu da gatazka hasi zenetik, bai Biden Administrazioaren aldetik, bai EBren aldetik. Baina gerra honetako buruzagiak harrokeriaz baztertu zuten egoera batean daude orain: Ukrainak bere lurraldearen % 20 galdu du, Donbaseto meztaritzea eta industria eskualde aberatsak eta ia bere kostalde osoa barne, eta bere ekonomia kolapsatu egin da, bere biziraupenerako soilik Amerikako eta Europako laguntzaren menpe.

Biztanleriaren nekea eta moral borrokalariaren hondoratzeko ezkutzea zaila da. Hamar milioi ukrainarrek herrialdeetik ihes egin dute, 800.000 klandestini-

tatean daude errekrutatzea saihesteko eta urtarrilean 90.000 desertzio izan dira. Horrek guztiak arazo militar ugari eta zailtasun ekonomiko handiak, eskulan gutxi dagoelako, eragin ditu.

Herritar gehienek ez dute gerrarekin jarraitu nahi eta negoziatzearen alde dute: inkestak arabera, % 50 baino gehiago mendebaldeko probintzietan eta % 70 baino gehiago fronterekin muga egiten dutenetan. Horrela, gerra jarraitzea ezinezkoa da.

Gerra inperialista eta iraultza sozialista

Ukrainako gerrak, Gazako genozidio sionista basatiak bezala, berriro ere argitu du sistema kapitalistaren krisi organiko zein urrun iritsi den. Potentzia inperialisten arteko nagusitasunaren aldeko borroka, Txinaren eta AEBren artekoak, XX. mendearen hasieran gertatu zen bezala, basakeriara hurbiltzen gaitu. Nazioarteko zuzenbidea deiturikoa errespetatzen duen mundu arautuaren beharrari buruzko predikua egiten dituztenak, non diplomazia eta forma onak nagusi diren, bereziki ezkerreko erakunde erreformistak, gaindituta daude errealtateagatik.

Kapitalismoaren menpean, ez orain, beti, munduko nagusitasunagatikako borroka indarraren, zapalkuntzaren eta gezuraren bidez gertatu da, Leninek azaltzen zuen bezala. Baina gaurko bezalako garaian, funtzionamendu modu hori estali nahi duen propaganda legalista eta humanitario guztia bertan behera geratzen da. Ukrainakoa gerra inperialista izugarria da, Ukrainako eta Errusiako langileek eta zapalduen beren bizitzekin ordaintzen dutena, eta helburua mundua kapitalisten artean banatzea da.

AEBk eta Europak garrantzitsuak izan dira gerra hau eragiteko, eta parekorik gabeko historiala duten esku-hartze inperialista basatien, akatsa izango litzateke Errusiaren eta Txinaren rol inperialista ez ulertzea.

Bi potentziek gorakada nabarmena izan dute azken hamarkadan, Estatu kapitalistaren erregimen pean. Putin antikomunista amorratua da eta ezker militante

eta komunista, feminismoa edo LGTBI mugimenduei aurre egiten die, ultraeskuindar trumpista eta europarrarekin bat egiten. Txobinista errusiar handi bat, Leninek guztiz aurre egin zuen horietakoa, SESBeko baliabide eta industria nazionalizatuak arpilatuz bere aberastasunak egin zituen klase kapitalista defendatzen duena.

Errusiak eta Txinak Gazako genozidioari buruz duten jokabidea bere izaera inperialistaren adibide ona da, herri palestinarren aurkako holokaustoa geldiarazteko neurri eraginkorak hartzeari uko egin diote. Bi potentziek Israelekin harreman ekonomiko, militar eta diplomatikoei eusten diete, eta Txina haren bigarren bazkide komertziala da.

Gerra inperialista eta zapalkuntza nazional mota guztiekin amaitzeko modu bakarra, gure gobernu kapitalistak salatzeko dela, eta masa mugimenduak bultzatzea, zapalduen guztiak batzen dituen nazioarteko iraultza sozialistaren bandera altxatuz lapur inperialisten aurka.

Ukrainako gerra aurre egin behar dugun basakeriaren beste kapitulu bat da. Eta gerra honen ondoren, ezinbestekoa da beste batzuk etortzea. Munduaren banaketak aurrera jarraituko du, eta esan behar dugu zapalduen, langileek eta munduko gazteek ez dutela inolako aukerarik gatazkan dauden inperialistekiko edozein talderen alde kokatzen badira.

Politika internazionalista eta klase independentzia defendatu behar dugu. Marx eta Leninen programara itzuli behar da, klasearen batasuna nazio mugen gainetik eraiki etsai komunaren aurka. Eta argi izan sozialdemokraziak eta freikorpsak eraildako komunista iraultzaile alemaniar Karl Liebknechten mezua inoiz baino indartuago dagoela: Etsai nagusia etxean dago!

**Behera gerra inperialista!
Internazionalismo proletarioaren alde!
Munduko langileak, batu zaitzete!
Iraultza sozialistaren alde!**



GREBA OROKOR historikoa Grezian

Epaketa eta zigorra arduradunentzat! 48 orduko beste greba orokor baterantz!

Raul Rivas

Otsailaren 28an, Greziako historiako tren istripu larrienaren bigarren urteurrenean (57 hildako eta 180 zauritu), milioika pertsonak kaleak hartu zituzten greba orokor historiko batean.

Atenasen milioi bat manifestari inguru izan ziren, 300.000 Tesalonikan eta protestak egin ziren Greziako 264 hiritan eta 125 atzerrian. Greba orokor horrek herrialdea erabat geldiarazi zuen, eta mobilizaziorik jendetsuena izan zen 1970eko hamarkadatik.

“Ez dut oxigenorik” lelopean, hil aurretik biktimitako batek egindako grabazio lazarritik aterata, kaleak amorrutuz bete ziren Mitsotakisen eskuineko gobernuaren gezurren, zabarkeriaren eta despotismoaren aurka. Hiriburuan, polizia-errepresio bortitzak (agente probokatzailen infiltrazioa, gas negar-eragileak, ur-zurrustak jaurtitzeko zintzuk tankeak...) ehun atxilotu eta dozenaka zauritu baino gehiago eragin zituen, baina ezin izan zuten manifestarien oihua isilarazi “hiltzaileak!” eta “dimisioa!”.

Haserrea ez zen hiri handietara mugatu. Donusa eta Fourni bezalako uharte txikietan, biztanleak masiboki batu ziren. Mitilenen, Lesbosen hiriburuan, aurrekaririk gabeko kontzentrazioa bizi izan zen. Greziako langile klaseak, jendeak bazter guztietatik mugimendu indartsu bat altxatuz, bere batasuna eta indarra erakutsi zituen.

Troikaren lapurretak utzi duen trenbide-sistema hondatua:

Greziako Aireko eta Trenbideko Istripuen Ikerketarako Agentzia Nazionalak (Eodasam) berriki egindako txosten baten arabera, trenbide-sistemak ez zuen talka sai-

hesteko oinarrizko segurtasun-sistematik. Azpiegitura egoera negargarrian zegoen: desbideratze akastunak, seinalizazioa ez zegoen erabilgarri eta langile gutxi. Sistemaren modernizazioa, 2014tik aurrerakoa, ez zen inoiz amaitu, nahiz eta Europako funtsak xede horretara bideratu.

Gainera, trenetako batek aitortu gabeko substantzia sukoiak zeramatzala ikusi zuten, eta horrek leherketa areagotu zuen. Ondorioz, hasieran hil ez ziren pertsonak hil ziren. Horri gehitu behar zaio larrialdi zerbitzuek istripuaren ondoren emandako erantzun kaotikoa, erreskatean atzerapenak eta, gainera, istripua gertatu den lekuko dokumentazioan akatsak izan baitira.

Demokrazia Berriko Gobernuak giza akatsari errua botatzen saiatu da, baina Eodasamen txostenak erakusten du zabarkeria sistemikoa dela. Inbertsio eta mantentze faltak, 2009ko krisi ekonomikoak areagotua, trenbide sistema atzera kontuko bonba bihurtu zuen. Tempeko istripua ez zen kasualitate hutsa izan, zerbitzu publikoak utzi eta privatizatzeo hamarkaden emaitza baizik.

Gobernuak ikerketan duen jarrera eskandalagarriak eta gardentasun ezak herriarren haserrea areagotu dute. Aurkikuntza gehienak biktimen senideek eskatutako txosten pribatuaren ondorio dira, eta, istripua gertatu eta bi urtera, 40 pertsona baino gehiago auzipetu dituzte, baina bat bera ere ez dute oraindik epaitu.

Oinarrietatik eraikitako mugimendua

Tragediaren bigarren urteurrena mobilizazio historiko bihurtzeko ideia urtarilaren 26an Biktimen Gurasoen Elkarteak antolatutako manifestazio masiboaren ondoren hasi zen gauzatzen. Elkarte horren lan irmoak burokrazia sindikalaren eta siste-

mako alderdien geldotasunaren aurkako borroka bultzatzen du —“amaieraraino” haiek dioten bezala—. Erabateko greba orokor baten ideiak milioika kontzientzia bereganatu zuen.

Oinarritzko sindikatuek ebazpenak onartu zituzten grebara deituz, eta milaka langilek, mugimendu sozial desberdinetako aktibistek eta ezker borrokalariaren erakundeek bultzada geldiezina sortu zuten. Ondorioz, PAMEk, KKEren plataforma sindikalak, eta ADEDYk bat egin zuten deialdiarekin, eta presioa hain izugarria izan zen, ezen GSEeren burokrazia endekatuak ere bat egin behar izan baitzuen.

Mugimenduaren eskakizunak sendoak dira: ikerketa independente bat, arduradunentzako zigor eredu garriak, langileen kontrolpean dauden trenbideen nazionalizazioa. Era berean, trenbide-sistemaren kudeaketa errotik eraldatzea eta kontuak ematea, salbuespenik gabe.

Grebaren arrakasta erabat eztaba daezina da, % 90eko jarraipenarekin. Lurreko, itsasoko eta aireko garraioak bertan behera geratu ziren. Garraio publikoak manifestazioetara joatea errazteko soilik funtzionatzen zuen doan. Supermerkatuak eta merkataritza txikia bezalako sektoreen langileek ere, grebekin bat egiteko zailtasun handiei aurre egin ohi dietenek, lan-gabeziarekin bat egin zuten.

Herrialdean arnasten den giroaren isla, zalantzarik gabe. Kapitalismoaren eta be-

re erakundearen funtzionamendu kriminala agerian uzten duen mugimendu ikusgarri horren bidez, Greziako langile klase kolpatuak bere kutsu jarri du berriro ere egoeran. Zigorra eskatzen dute arduradunentzat eta justizia biktimentzat, baina otsailaren 28an bizitako matxinada sozial hau haratago doa. Urteetako sufrimenduaren, pobretze masiboaren, eskubide demokratikoen eta lan-eskubideen murrizketa jasatearen, indarkeriaren eta errepresio polizialaren ondoren, horren guztiaren aurka borrokatzeko tradizioarik onenak berreskuratu dituzte.

Gobernu kriminal hau bertan behera uzteko indar nahikoa badago

Horrek guztiak agerian uzten du Demokrazia Berriko Gobernuak, baina oposizio ofiziala ere gogor seinalatzen du, boterearen aurrean makurtzen den ezker erreformista hori. Orain, Pasok, Syriza eta Ezker Berria alderdiek, ondo geratzeko, zentsura mozioa aurkeztuko dute nahiz eta jakin galduko dutela. Hala ere, amarru parlamentario batek ere ezin du estali bere erabateko porrota, eta are gutxiago Greziako Gobernuarekin amaitu.

Zalantzarik gabe, mugimendu honen ahalmen iraultzaile izugarria. Mitsotakis-en Gobernuak eta bere politika erreazionarioak bertan behera uzteko indarra frogatuta dago. Baina hau gertatuko da kaleetan borroka jarraitzen badu. Beste greba orokor baten data jarri behar da, oraingoan 48 ordukoa. Eta horretarako antolaketak ugaltu eta areagotu behar da, ekintza guztiak eztabaidatu eta erabakitzeo bazar demokratikoekin, langileen, ikasleen eta bizilagunen batzordeak sortuz eta hedatuz auzoetan, lantegietan, institutuetan eta unibertsitateetan.

Zalantzarik gabe, KKEko milaka militantek eginkizun nabarmena izan dute mugimendu horretan parte hartuz eta bultzatuz, hala nola Gazako genozidio sionistaren eta gerra inperialisten aurka, eta urte hauetan guztietan borroka sozial eta sindikal ugartan. Orain, KKEko buruzagitzak aukera du egungo gertaerak aurrerazteko.

Bada garaia greziar komunistek eta iraultzaile guztiek indarrak batzeko, Mitsotakis bota arte borroka estrategia bat defendatuz, eta istripuko biktimentzako justizia eta erantzukizuna dutenen zigorra langile klasearentzako eta gazteriarrentzako funtsezko aldarrikapenekin lotuko dituen programa bat defendatuz:

- Soldata-igoera nabarmen esanguratsua eta hitzarmen kolektiboak berreskuratzea
- Hezkuntza, osasuna eta etxebizitza publikoak defendatu. Amaitu murrizketak berehalaxe!
- Zerbitzu publiko pribatizatuaren birnazionalizazioa, trenbideetatik hasita
- Militarismoaren eta gastu militarren aurka, lege autoritario, errepresibo eta arrazisten indargabetzea...
- Kapitalistak desjabetuko dituen, bankuak eta enpresa handiak nazionalizatuko dituen eta aberastasun guztia langile klasearen eta zapalduen mesedetan jarriko duen alternatiba iraultzailearen alde.

► ezkeriraultzailea.net

**Astinaldi ikaragarria
Alemaniako hauteskundeetan**

**SPDK hondoa jo du eta AfD
ultraeskuindarra aurrera doa indartsu**



BESTE M8 IZUGARRI BAT

Feminismo antifaxistak, antiarrazistak eta klasekoak kaleak hartu ditu

**Ezker Iraultzailea
Emakume Aske eta Borrokalariak
Ikasle sindikatua**

Berriz ere egin dugu. Milioi bat pertsona baino gehiago atera ziren Euskal Herrian, Katalunian, Galizian, Andaluzian, Madrilan eta Espainiar estatuko beste lurraldeetan. Giro borrokalaria, emakumez betea, gazte eta langileak, hotz, euri eta haize artean aurrera eginaz.

Mugimendu honek berretsi du muienean daraman klaseko eduki antikapitalista. Jo puntuan jarri ditu eskuin mutur negazionista, Palestinako genozidio sionista eta konplize inperialistak (AEBko eta EBko gobernu kapitalistak, PSOE-Sumar koalizioa barne), eta baita ere gure lan eskubideak, eskubide demokratikoak eta zerbitzu publikoak mehatxatzen dituen militarismo globala.

Euskal Herriko Mugimendu Feministako, ELAko, LABeko eta ESKko zuzendaritzek kalean mobilizazio masiboen lekukoa hartzeko ordua da. Euskal Herriko kaleetara atera diren hamarnaka mila pertsonen erakusten dute: argi dago indarra dagoela, amorrua dagoela, inoiz baino motibo gehiago daudela: Greba Orokor Feminista berri bat behar dugu, borroka plan batekin eta aldarrikapen zehatzekin, esaterako, zaintza sistema publiko bat.

Borroka feministak baztertu egin du boterea deseroso sentiarazten duenaren aurrean isiltzen den feminismoa, alegia, bankariak eta enpresariak langileekin partekatzen dituen, interes berberak izango bagenitu bezala; zapalduen artean zapalduenei bizkarra ematen jarraitzen duen feminismo zaharkitu, arrazista eta transfobo hori.

Gu izan gara, eta gu bakarrik, langileak, gazteak, pentsionistak, etxeoandreak, alokairua ordaindu ezin dugunak eta zerbitzu publikoen pribatizazioa sufritzen dugunak, mugimendu feminista borrokalaria altxatu dugunak, hainbesteko beldurra ematen dien feminismoa. Hain zuzen ere, gure borroka sistema kapitalista basatiaren erroen aurkakoa baita, ezer eskaintzen ez digun sistema.

Horregatik, Emakume Aske eta Borrokalarietako, Ezker Iraultzaileko eta Ikasle Sindikatuko komunista iraultzaileak, zutik gaude borrokaren lehen lerroan. Iraultzarik ez baita, feminista izan ezean.

Gure megafonoek, pankartek eta manifestazioetako segizioek gure borrokarako grinagatik hartu dute entzutea, milaka pertsona batuz Estatu osoan zehar, kantatuz eta geratu gabe garrasi eginez: Gora borroka feminista! Kapitalismoa matxismoa da! PNV ez da feminista! ¡Feministas antifaxistak! ¡Patriarkatua eta kapitala aliantza kriminala! eta abar.

Ikasle greba feminista

Ikasle Sindikatuak eta Emakume Aske eta Borrokalariak deitutako martxoak 7ko ikasle grebak martxoak 8ra begira motorrak berotzen hasteko egindako ekarpen handia izan da. Deialdiak ikasgelak hustu ditu, milioi bat ikasle baino gehiagok parte hartuz, eta hamabietatik aurrera kaleak betetz borrokako grinaz eta duintasunez.

Eskuin muturrak eta feminismoarekin hain haserre dauden matxirulo horiek guztiak erotuta gaudela eta protesta egiteko arrazoirik ez dugula esaten dituzten bitartean, indarkeria matxistak gu hiltzen jarraitzen du, sexu-erasoek aurre-

ra jarraitzen dute, desberdintasunek bere horretan diraute, eta justizia patriarkal eta klasista horrek zigorrik gabe uzten ditu gure erasotzaileak, galdeketa nazkagarriak egiten dizkiguten eta errua egozten diguten bitartean.

Feminista antifaxistak beti!

Gure zapalkuntzak lotura estua du eskuin mutur globalaren aurrerapenarekin. Internazional erreazionario bat dago, gorroto bizia diona mugimendu feminista borrokalariari. Trumpek, Elon Muskek, Abascalek, Melonik, Milieiek, Alternativa por Alemaniak, Ayusok... langileria, emakumeak, etorkinak, pertsona transak, ezarri gaituzte lurreratzeko arerio gisa. Otzan eta isilik nahi gaituzte.

Voxek eta PPK, ikastetxeetan berdintasunean eta kontsentsuan oinarritutako hezkuntza debekatu nahi duten frankistak dira. Eta olatu erreazionario honen lehen aliatu naturala eskuin tradizionala da, kapitalisten interesen ordezkaria. EAJk Ertzaintza langile gatazken, gatazka feminizatuen eta martxoaren 3ko urteurrena bezalako borroka sozialen aurka kargatzera bidaltzen duen bakoitzean argiago ikusten dugu. Postureoko orgara igotzen dira eta pin morea jartzen dute M8an, urte osoan gure zapalkuntzaren erantzule eta bermatzaile diren bitartean.

Erreakzioa eta ofentsiba, emakumearen eskubideak eraisteko lehen helburu gisa jarritz, feministak urrunegi iritsi direla oihukatuz, ezker instituzional eta sistemara egokituak, zarata eta oinarritzko borroka eta militantzia gogaitzen dituen sasi-ezker horrek, ez duelako ezer egiten horiei aurre egiteko, beren gorrotoa zabaltzeko bidea libre utziz.

Hego Euskal Herrian Desokuparen agerpenak, Kaleko Afari Solidarioen aurkako kanpaina Donostian, abisu larriak dira. Eskuin muturraren aurkako gure harresia kaleetako mobilizazioak dira: langileria antolatu eta borrokalari bat. Zintzotasunez esan behar dugu, Bilduko kideek jarrera zuzendu behar dute: erreakzio espainolistaren aurrerapena geldiarazteko EAJrekin batera joan nahi izatea —78ko Erregimenaren zutabea ez baltz bezala—, distopia arriskutsua da. EAJ patronalaren, errepresioaren eta ustelkeriaren alderdia da. Feminista antifaxistok bide bakarra dugu erreakzioa geldiarazteko: antolaketa eta mobilizazioa kaleetan.

PSOE eta Sumarren Gobernuari mezu argi bat bidali diogu. Esaten duten bezain progresistak izango balira justizia patriarkalarekin amaituko lukete, hezkuntza sexualaren ikasgai bat jarriko lukete martxan eta Eliza katolikoaren boterearen aurka egingo lukete ikasgeletan. Etxebizitzaren parke publiko bat jarriko zuten martxan, etxejabeen negozioareki amaitzeko. Desokupa ilegalizatuko lukete. Gerra inperialisten finantziarioa geldituko lukete eta genozidioen konplize izatea ezeztatuko lukete; eta ez lukete Voxekin diskurtso bera partekatuko trans kolektiboari buruz.

Ez gara geratuko guztiak libre izan arte, etxera beldur gabe itzuli ahal izan arte, gure auzoetako eta bizitzetako eskuin muturreko zepa hau garbitzen dugun arte. Eta horretarako organizazio feminista, iraultzaile eta antikapitalista bat altxatu beharra dago. Hori egiten dugu Emakume Aske eta Borrokalariak, Ikasle Sindikatu eta Ezker Iraultzailetik eta guztiak animatzen zaituztegu gurekin eraikitzen jarraituzera. Ez gara geratuko gure kateak apurtu arte eta biolentziaz eta opresioaz guztiz libre izan arte. Eta "Ez dira pasako!" garrasi eginez egingo dugu.



Banku, funts putre, eta etxejabe errentadunen etxeak desjabetu

ETXEBIZITZA PUBLIKO UNIBERTSALA ALOKAIRUEN GREBARANTZ!

EDITORIALA

Apirilaren 5ean, larunbata, Estatuko hiri nagusietako kaleetan oihu masibo bat entzungo da berriro, etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeko arazo gero eta larriagoari irtenbidea ematea eskatuz.

2024. urtearen hasieran Kanariar Uhartetan egin ziren lehen manifestazioetatik hasi eta udazkenean Madrilen eta Bartzelonan zein Bilbon egin ziren mobilizazio erraldoietara arte; milioika pertsona, batez ere gazteak, espekulazioaren eta gure soldaten zati gero eta handiagoa bereganatzen duten etxejabe errentarien harropuzkeriaren aurka borrokatzea atera gara.

Mugimendu honek indar izugarria erakutsi du, alokairuen greba erreallitate bihurtzeko antolatua eta indartu behar duguna. Erregimeneko komunikabideetako kalakari guztiak ideia horren aurkako kanpaina basati bat egiten ikusteak erakusten du kontsigna horri dioten benetako beldurra.

Milioika pobretzen gaituzten politika kapitalisten salaketa bihurtu da borroka hau. Alderdi Popularra, EAJ eta eraikuntzako eta higiezin sektoreko enpresari handiak zuzenean seinalatzen ditu, baina ez horiek bakarrik. Era berean, PSOE-Sumar Gobernuak duen erantzukizun nabarmena seinalatzen du, ez baitu neurri eraginkorrik hartzen eta gainera etxejabe errentariak babesten baititu.

PSOE-Sumar Gobernuak espekulatzailak eta errentariak aberasten laguntzen du

Datuek argi uzten dute: alokairuek %14ko igoera historikoa izan dute 2024an. Milioika familiak beren diru-sarreraren %60 behar dute etxea ordaintzeko eta ehuneko hori are da gazte gehienentzat.

2008ko krisia aldaketa puntua izan zen. 2002an, familien %80,7k ohiko etxebizitza jabetzan zuten. Hogei urte geroago, ehuneko hori %72ra jaitsi zen. Joera

hori bizkortzen ari da, eta higiezin propietatearen jabetzaren kontzentrazioak aurrera egiten du. Etxebizitzaren salerosketa, 2024an, 641.919 eragiketako izan zen, 2007tik izandako bigarren handiena. Prezioen batez besteko igoera %11,2koa izan da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2008ko higiezin burbuilaren unerik gorenekoak gainditu ditu.

Etxebizitzetan egindako inbertsioa estuki loturik dago turismoaren sektorearen hedapenarekin eta gorakadarekin eta espekulazio eta negozio iturri basati bihurtu da jabe txiki, arrazista eta matxista horientzat, EAJren, PPren eta Voxen oinarri direnentzat. Baita nazioarteko enpresa handientzat eta inbertitzaileentzat ere.

PSOE-Sumar gobernuak behin eta berriaz aho betez iragartzen dituen neurriak demagogia hutsa dira. Etxebizitza publikoak sortzea ezerezean geratzen da eraikitzeke ekimena esku pribatuetan uzten delako. Zein higiezin-sustatzailek aukeratuko du etxebizitza prezio mugatueta eraikitzea, bigarren eskuko merkatuan etekin izugarriak lor baditzake?

Are gehiago, neurri horiek errentatzaileei eta espekulatzailaiegi egiten diete mesede. Dirulaguntza mamitsuak eskaintzen dizkie, normalean zerga-kenkariaren bidez, alokairuen prezioa beren borondatez motteldu dezaten. Azkenean, prezioak ez dira jaisten eta laguntzak parasito horiek poltikoratzen dituzte.

Norabide horretan doa Bartzelonako Udalak (PSCk gobernatzen du, Barcelona en Comuren babesarekin) etxegabeteke mehatxupean zeuden Casa Orsolako maitzerren borrokari eman dion erantzuna. Desjabetzea planteatu beharrean, Udalak higiezina erostea erabaki zuen funts pu-

treak 2021ean ordaindu zuena baino %70 garestiago. Hau ez da espekulazioaren aurka borrokatzea, espekulatzailak diru publikoarekin elikatu eta gizentzea baizik!

PSOEek eta Sumarrek hasitako bideetik ezinezkoa da etxebizitzaren arazoari konponbiderik ematea. Ez dugu ezer espero behar haiengandik, eta, horregatik, gure mobilizazioetan adierazten den haserre indar eraginkor bihurtu dadin, arazoaren erroa doan programa bat eraiki behar dugu. Hau da Ezker Iraultzailetik proposatzen dugun programa:

- Titulartasun publikoko bi milioi etxebizitza eraikitzea alokairu sozialerako, besterendu ezin daitezkeenak eta LGSaren %20 gainditzen ez dutenak. Horretarako, bankuen, funts putreen, espekulatzailen eta etxe-jabe errentariaren esku dauden etxebizitzak desjabetzea, kalte-ordainik gabe, Sarebek oraindik kudeatzen dituen etxebizitzekin batera. Etxebizitza unibertsal publikoaren parke hori borrokan inplikaturako sindikatu, asanblada eta etxebizitzaren kolektiboen kontrolpean eta kudeaketa demokratikoaren kontrolpean egon behar da.

- Alokairu guztiak topatzea egungo prezioen batez bestekoa %50 jaitsita. Maizterrak babesten dituzten alokairu-kontratu mugagabeak eta neurrigabeak klausulen debekua.

- Alokairu guztiak berehala topatzea, metro karratu bakoitzeko egungo prezioen batez bestekoa %50 jaitea dakarren gehieneko muga ezarritik. Edozein motatako abusuzko klausulak debekatzea, eta etxe-ko arau-hausleei zehapen ereduariak ezartzea.

- Alokairuko kontratu mugagabeak ezartzea, maizterrak babesteko eta gehiegizko igoerak eragozteko.

- Hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagariaren desjabetzea, kalte-ordainik gabe, inbertsio-funtsen, bankuen eta higiezin espekulatzailen esku. Higiezin agentzia handien eta eraikuntza-enpresen desjabetzea. Lurralde guztietan eraikuntzako enpresa publikoen estatu-sarea sortzea, langileen kontrolpean. Horrela, lizitazio publikoen ustelkeria odoltsua amaituko litzateke eta etxebizitza merkatutik aterako litzateke.

- Turismo-alokairua edo sasoiko alokairua debekatzea bizitegi-defizita duten eremuetan.

- Etxegabeteak legez debekatzea. Aski da langile klasea pobretzeaz. Auzo eta langileen autodefentsa Desokupazio faxisten eta haien higiezin negozioaren aurka.

Mobilizazioari eta borroka kolektiboari esker, hilabete hauetan gure amorruta gatazka sozial oso indartsu bihurtu dugu. Apirilaren 5ean, egun berean manifestazio jendetsu bateratuetan protagonista izango gara, eta hori aurrerapauso handia da. Baina garaitzeko, garrasi hori borroka luze eta sendo bihurtu behar da, Gobernu zentrala eta autonomikoak garaitzeko eta banketxeak, funts putreak eta etxejabe errentariak paretaren kontra jartzeko gai dena.

Horregatik, alokairu-greba antolatu behar da, eta ekintza langile klase osora zabaldurik. Eta ekintza horretan laguntza-masa kritikoa hori metatuta, behetik lan egin behar da herrialdea erabat geldiarazteko greba orokor handi batean, sindikalismo borrokariaren eta borroka emateko prest dauden erakunde eta mugimendu sozial guztien parte-hartzearekin.

Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan bezala, klaseko borroka estrategia batekin, langileok dugun indarraren bidez herrialdea geldiaraziz, egoera iraui eta benetako garaipena lortuko dugu.



Elkarrizketa Aroztegiko

Elkartasun Komiteari



EHS: Duela 20 urte abiatu zuten Aroztegiko afera, azken urteetako proiektua zertan datza?

Aroztegiko Elkartasun Komitea (AEK): Nafarroako Gobernuak UGEParen bitartez onartu zuen azkenengo proiektuak Lekarozen (350 biztanle) luxuzko hotela, golf zelaia eta 228 txalet egitea proposatzen du. Modu honetan 46 hektarea nezal lur birkalifikatu dituzte urbanizagarri bihurtzeko.

EHS: UGEPa bidez inposatu zuen proiektua UPNren Nafarroako Gobernuak. Gaur egun PSN eta Geroa Bai (Zurekin Nafarroa ere NGan dago gaur egun) daude Gobernuan EH Bilduren laguntzarekin. Zer egin ahal dute?

AEK: Behin eta berriz adierazi dugu proiektu hau Nafarroako Gobernuak gelditzen ahal duela eta gelditu behar duela. Hasiera batean UPNk abiatutako proiektua izan bazen ere, 2015az geroztik gobernuan egon direnek ere UGEP honen alde egin dute. 2015eko gobernu aldaketarekin aukera izan zuten proiektua gelditzeko, baina ez zuten egin, eta, gainera, akordio programatikotik kanpo utzi zuten denen onespenerekin.

Horregatik, maila ezberdinetan bada ere, gaur egungo egoeraren erantzule dira bai Nafarroako Gobernuan daudenak, bai gobernu hori babesten dutenak ere. Eskatzen dugu erantzukizunez jokatzeko eta Aroztegiko UGEPa berehala gelditzea. Gainera, egoera hau berriro ez errepikatzen, UGEPen legea aldatzea beharrezkoa da.

EHS: 2021an obra abiatu zuten baimen guztiak izan gabe. Makinen aurrean jarrita eta kanpaldi bat eginez obra gelditu zen. Parte hartu zutenetik 7 baztandar salatu dituzte: denera 20 urteko kartzela zigorra eskatzen diuzete eta 56.000€ ordainarazi. Zertaz salatzen zaituztete?

AEK: Alde batetik, bortxa eta derrihortze delituak leporatzen dizkigute; bertetik, talde kriminala izatea. Argi dago zigor-eskaera hauen helburua herrien burujabetza eta luraren defentsan ari garen herri mugimenduak kriminalizatzea dela. Gu eraso bortitz baten aitzinean geunden, eta gure gorputzak makinaren aitzinean jarriz desobedientzia zibila eta ekintza zuzena erabili genituen gure lurra eta bizimodua defendatzeko. Hori onartzen eta aldarrikatzen dugu, baina hori ez da leporatzen zaiguna.

Neurritz kanpoko eskaera hauen baitan zigor ekonomiko izugarria ere badago. Promotoreek Nafarroako eta Espainiako gobernuari 43 milioiko indemnitazioa eskatu diete, haien pelotazo urbanistikoa gairik

“Herri honek ez ditu inposizioak eta bidegabekeriak onartuko”

Baztango bailaran kokatzen den 350 biztanleko Lekarozko herriak 20 urteko ibilbidea egin du espekulazioaren mamurruaren kontra.

2021ean etxebizitzaren, luxuzko hotelaren eta golf zelaia-aren obrak abiatzeko makinak sartu zituztenean, herritarrek kanpaldi bat egin zuten obra hauen kontra agertzeko, Aroztegiko eremuan bertan. Makinen aitzinean beren gorputzak

paratuz, sekula hasi behar ez zuten obrak segitzea eragotzi zuten.

Hala ere, borroka ez da amaitu. Aitzitik, ahalik eta elkartasun handiena eta zabalena behar du une honetan. Aldizkari honen orrialdeetatik eta Ezker Iraultzailetik gure babesa eta elkartasuna berretsi nahi genituzke. Utikan espekulatuzaileak! Kriminalizaziorik ez! Elkartasunez aitzinerat!

zki atera delako. Aldi berean, bidea zabalik dute diru hori diru publikotik lortu ezean auzipetutako zazpiti eskatzeko.

Beraz, alde batetik, gure borrokaren kriminalizazioa eta kartzela-eskaera dago; bertetik, bizi osorako izango litzaitekeen zigor ekonomikoa.

EHS: Otsailaren 1eko Iruñeko manifestazio arrakastatsuen ondoren ze pazu emango dituzue jendea mobilizatu dadin?

AEK: Hemendik aitzin, orain arte egindako lanari segida emango diogu. Alde batetik, eskatu duten herrietan hitzaldiak ematen segituko dugu, garrantzitsua delako Euskal Herri osoan jakitea zer gertatzen ari den. Hitzaldi hauetako batzuk luraren defentsan ari diren bertze eragileekin batera izango dira.

Bertzalde, aste honetan auzolana berabiarazteko batzarra egin dugu, eta ar-

lo ezberdinetan lanean segituko dugu. Lan komunikatiboa indartuko dugu, ekintza eta deialdi ezberdinak antolatuz, baina gure helburu nagusia sostengu soziala indartzea izango da. Maiatzaren 14tik 23ra epaiketaren astean, Iruñean

ahal den babes handienarekin egotea funtsezkoa da.

Epaiketa politikoa denez, garrantzitsua da arduradun politikoek herriaren jarrera argi ikustea: herri honek ez ditu inposizioak eta bidegabekeriak onartuko.

► ezkeriraultzailea.net

Oiongo Udalak (EH Bildu) astakeria “ekologikoa” onartu du Toloño mendilerroan



TRANSIZIO ODOLTSUA

Bertsio ofizialaren atzean dagoen egia –EKITALDI PUBLIKOAK–

- BILBO: Maiatzak 28, asteazkena, 18etan | Zirika! Herri gunea (Erronda kalea, 12)
- GASTEIZ: Maiatzak 29, osteguna, 18etan | Landatxo Gizarte Etxea (Santa Maria kalea, 4)



EZKER IRALTZAILEA



Gonbidatua



Trumpek Zelenskiri egotzi dio errua, AEBk Ukrainan izandako porrot katastrofikoa ezkutatzeko

MENDEBALDEKO INPERIALISMOA INOIZ BAINO ZATITUAGOA!

Ezker Iraultzailea

Etxe Zuriaren bileran Trumpek, Vance presidenteordeak eta Zelenski Ukrainako presidentek izandako liskar bortitza Ukrainak, AEBk eta EBk Errusiaren aurka egindako gerran jasotako porrotaren ziurtagiri ofizial bihurtu da. Liskarra zuzenean ikusi dugu, non Trumpek eta Vancek mespretxatu duten Zelenski publikoki, Hirugarren Mundu Gerra eragin nahi izatea leporatuz, Errusiaren aurrean amore eman nahi ez izateagatik.

Ukrainako presidentea, urte hauetan guztietan AEBetako eta Europako inperialismoaren txotxongilo bat besterik izan ez dena, patetikoki defendatzen saiatu zen, baina Trumpek, jaun eta jabe izanik matoi baten moduan, bere hitzak zaintzeko eskatu zion behin baino gehiagotan. Ezer lortzeko aukerarik ez duela adierazi zion eta are gutxiago gerra jarraitzeko giza baliabiderik ez duelako, AEBko laguntza militarra behar baitu.

Azkenik, baliabide mineral, lur arraro, gas eta petrolio-ontzi ukrainarren erdia AEBri lagatzeko akordioa publiko egiteko aurreikusitako prentsaurrekoa bertan behera geratu zen. Trumpek adierazi zuen elkartuko dela bakarrik Zelenski “bakerako prest dagoenean”. Honela tratatzen du jabe kapitalistak zi-paio esanekoa.

AEBk eta Errusiak gerra amaitzeko negoziazioan parte hartu duten ikuskizunak ez du aurrekaririk his-

torian. Badago diplomazia deitzen dena eta funtzio politiko oso garrantzitsua duena: jendeari gezurra esatea, ideia eta argudio altruistekin engainatzea, helburu harraparienak ezkutatzeko. Baina orain eskola diplomatikoa amaitu da. Boterean dauden eskuin muturreko aberatsek argi utzi nahi dute beraiek bakarrik agintzen dutela eta, txintik esaten badiete, modu zakarrean zapaltzen dituztela. Trumpen erregimenaren garapen bonapartistaren erakusgarri ona.

Bilera horrek Europako klase menderatzailearen taldeetan eragin duen shocka ikusgarria izan da: EB kapitalista nazioarteko harremanetan duen garrantzirik gabeko posizio errealean jarri du. Bruselan ulertzen ari dira AEBko presidentek ez diela utziko eskua sartzen bake negoziatioetan, hau da, harrapakinaren banaketan. Mezu argia bidali die: prest dago EB lehertzeko, herrialde jakinetan eragin eremuak ziurtatzeko, eta horretarako Europako eskuin muturreko aliatuak ditu.

Egoera ustel honetan, inperialisten arteko borroka mendebaldeko blokearen batasuna zenbat ahuldu duen islatzen duen honetan, europar liderren mezu tamalgarriak kokatu behar dira. Macronek, Von Der Leyenek edo Pedro Sanchezek berak Ukrainaren alde daudela berretsi dute, eta Zelenskiren ausardia goraiatu dute. Baina horrek ez du indar korrelazioa aldatzen: AEBko laguntza militar eskerga gabe, Ukrainako defentsan, munizioetan, defentsa sisteman eta inteligentzia aholkularitzan egiten den gastuaren % 50 baino gehiago dena, Ukrainak porrot lazgarria jasan dezake.

Nolanahi ere, propaganda alde batera utzi behar dugu, eta mahai gainean dauden funtsezko gaiak planteatu. Zein maniobra gaitasunarekin joan daitezke negoziatzaile estatubatuarrak Moskuko ordezkariekin egiten diren bileretara? Zer sinesgarritasun mota izango dute munduaren aurrean Ukraina erabat garaituta dagoela onartu dutenean? Eta zer giro izango da Kieven eta Ukrainako tropen artean, duela hilabete batzuetatik moralki oso ukituta daudenak, gerrarekin jarraitzeko?

Zalantzarik gabe, Estatu Batuetako inperialismoaren sektore batzuk amorraturik egongo dira. Bi aste hauetan, Trumpek Zelenskiri leporatu dio gatazka piztearen ardura eta “herrialdea hondoratuko” duen diktadorea izatea. AEBko ordezkariak ebazpen bat bozkatu dute NBERen Segurtasun Kontseiluan, Errusiarekin eta Txinarekin batera, Britainia Handiaren eta Frantziaren abstentzio patetikoarekin, “gerrari amaiera emateko eta bake iraunkorra eraikitzeko”. Eta Trumpek Zelenski agerrarazi nahi du, iparramerikar inperialismoaren pelege soil bat besterik ez dena, porrotaren erantzule gisa. Baina arreta desbideratzeko ahalegin horrek ezin du errealtate gordina ezkutatatu: AEBk galdu egin du Ukrainan, Errusia eta Txina kualitatiboki indartu diren bitartean.

Washingtonen gainbehera gezurrekin eta propagandarekin estaltzea Trumpen Administrazioaren amaiera ere bada. Baina burrunbak ezin ditu ezkutatatu, Marc Rubio Estatu idazkaria buru dutela Estatu Batuetako negoziatzaileen kezka aurpegia Saudi Arabian, konfiantzaz betetako ordezkari errusiarren aurrean. Ondo hasten da MAGA estrategia: porrot militar, politiko eta ekonomikoa, Irakekoa edo Afganistangoa baino askoz ere astunagoa.

2. ORRIAN JARRAITZEN DU ▶

